

Lizitaziora atera dira Astigarragan AP-8 errepideko Garraio Zentroa eraikitzeko lanak



2021erako Gipuzkoak abian izango du 545 kamioientzako Garraio Zentro Integrala, AP-8 errepideko bi eremutan, Astigarragan eta Oiartzunen.

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturretako diputatuak iragarri du lizitaziora atera dela Astigarragako Garraio Zentroa eraikitzeko lanen exekuzioa. 355 kamioi aparkatzeko plataforma bat, zerbitzuen eraikin bat eta 39 ibilgailu arinentzako kanpoko aparkaleku bat izango ditu. Obrek 9,5 milioi euroko aurrekontua dute eta Bidegik finantzatuko ditu. Lanak burutzeko 24 hilabete beharko direla aurreikusten da. Garraio Zentro Integrala Oiartzungo kamioientzako aparkalekuaren berrantolaketarekin osatuko da, eta erabilgarri egongo da 2021erako.

Garraio Zentro Integral berria AP-8 autopistaren bi eremutan eraikiko da: plataforma berri bat izango du Astigarragan, Behobiarako noranzkoan doazen ibilgailuentzat, eta beste bat Oiartzunen, Bilborako noranzkoan doazenentzat. Astigarragako obra hori izango da Gipuzkoako Garraio Zentro Integral berria osatzeko lehen jarduketa. 545 kamioientzako lekua izango du guztira; horietatik 355 Astigarragan egongo dira, eta gainerako 190ak Oiartzunen.

Aintzane Oiarbidek proiektu honen garrantzia azpimarratu du: «Zerbitzu on bat eskaini nahi diegu autopista erabiltzen duten garraiolariari. Uste dugu garraio zentro honek trafikoa arinduko duela, eta, gainera, zerbitzu on bat eskainiko diela kamioilariari, atsedean har dezaten; langileen eta ibilgailuen segurtasuna bermatuko dugu horrela». Garraio Zentro Integrala 4. mailakoa izango da Europako estandarren arabera, eta, Oiarbide diputatuak adierazi duenez, «bakarra izango da Euskadin, eta Estatu mailako handiena, halako zerbitzu eta segurtasun maila eskaintzen duena».



Bidegi arduratuko da Astigarragan urbanizatzeko lanak egiteaz: plataforma egiteko, lurra berdinu beharko da lehenik, eremua hondeatuz eta betez. Orobat, autopistatik bide adar bat eraikiko da, 176 metroko luzerakoa; aparkalekuaren parean sartzeko eta irteten den trafikoa banatzeko biribilgunea eta AP-8 errepidera sartzeko 300 metroko adar bat ere egingo dira. Drainatze sare bat ere egingo zaio, zeinak euri urak tratatzeko sistema bat izango baitu, eta pantaila akustiko begetalak eta polikarbonatozkoak jarriko dira. Garraio Zentroak 55.591m²-ko zoladura bat izango du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak CO₂ isurketak murrizteko egina duen apustuaren bidetik, lurzati bat gorde du ingurumena errespetatzen duten erregai jasangarrientzako, gasa eta hidrogenoa besteak beste, eta baita ere ibilgailu astunak elektrizitatea kargatzeko instalazioentzako.

Astigarragako zentroa, erabat berria, 17,000 KPan kokatuko da, Behobiako noranzkoan, eta Frantzia aldera doan trafikoa hartuko du. «Guk diogu garraio zentro honek trafikoaren arintasuna hobetuko duela Frantziako noranzkoan, eta zerbitzuguneetan ibilgailu astunak pilotzea ekidindo duela, mugan pilaketak daudenean ere atsedean hartzeko edo gestioak egiteko aukera izango baitute, instalazio berrietan eskainiko diren zerbitzuei esker». Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako azpiegiturak modernizatzeko egina duen apustuaren barruan kokatzen da: Nazioarteko garraioaren igarobide gara, trafiko astunaren zirkulazio handia dugu, eta horrek afekzioak dakartza ezinbestean; espero dugu honek trafikoaren arintasuna hobetzen lagunduko dugula», gaineratu du Oiarbidek.

Aurreikuspenen arabera, 2019ko azken hiruhilekoan aterako da lizitaziora Garraio Zentro Integrala erabiltzeko eta ustiatzeko emakida. Emakidadunaren ardura izango da Astigarragako zerbitzuen eraikina eraikitzea eta bi plataformen itxitura perimetrala eta zainza sistema abian jartzeko lanak egitea.

Beste 190 kamioientzako zerbitzua, Oiarzunen

Oiarzungo zentroa egungo Oiarzungo zerbitzugunean kokatuko da, hau da, 8,000 KPan. Gaur egun, bi aparkaleku daude eremu horretan, bat noranzko bakoitzean: Bilborako noranzkoan kokatutakoak 150 ibilgailuentzako lekua du eta Behobiarako noranzkoan dagoenak, berriz, 57rentzakoa. Birmoldaketa proiektuaren lizitazioa 2020ko urtarrilean egitea aurreikusten da; hala, plataforma bakar batean bilduko dira orain dauden bi zelaiguneak, 190 ibilgailuentzako azalera bat osatuz Donostiarako noranzkoan. AP-8 errepidetik dagoen sarbidea mantenduko da, Irungo enborreko ordainleketatik igaro bezain laster, eta zirkulazioa banatzen duen barneko biribilgunea kenduko da. Aparkaleku berrirako sarrera bi noranzkoko bide bat izango da, eta zelaigune berriaren perimetro osoa inguratuko du.

Lanak bi fasetan egingo dira une oro 35 eta 100 ibilgailuentzako lekua bermatze aldera. Zerbitzuen eraikina orain erabiltzen den bera izango da, eta eutsi egingo zaio Behobiako noranzkoan dagoen gasolindegitik zerbitzugunera joaten diren ibilgailu arinentzako aparkalekuari. Berrantolaketa horren kostua 2,2 milioi euro izango da gutxi gorabehera. Obrak egin ondoren, Astigarragako zentro berriak dituen segurtasun eta zerbitzu estandar berberak izango ditu. Gaur egun, ez du perimetroko itxiturarik, ezta ere segurtasun sistematik edo kamera-zaintzarik.



Garraio Zentro Integralaren bi plataforma berriak, Astigarragakoa eta Oiartzungoa, perimetro itxi baten barruan egongo dira, eta azalera guztia eta sarrera-irteerak monitorizatzeko zaintza-kamerak eta argiztapena izango dituzte. Esparrura aparkalekuko langileak eta gidariak bakarrik sartu ahal izango dira, erabiltzaile eta salgaien segurtasuna bermatzeko. Bi zerbitzuguneetako zerbitzuen eraikinek jatetxe-kafetegia, supermerkatua, komunak eta dutxak, telebista gela edo aisialdi eremua eta garbitegia izango dituzte. Beste zerbitzu hauek ere izango dituzte: wifia, kutxazain automatikoa, telekomunikazio zerbitzuak, takografoa deskargatzeko sistema eta plaza alde zentraleratik erreserbatzeko aukera.

Zarautz, 2019-02-27



Sale a licitación la construcción del Centro de Transportes de la AP-8 en Astigarraga



Para 2021 Gipuzkoa tendrá operativo un Centro Integral de Transportes para 545 camiones, en dos áreas de la AP-8, en Astigarraga y Oiartzun.

Aintzane Oiarbide, diputada de Infraestructuras Viarias, ha anunciado hoy que sale a licitación la ejecución de los trabajos para la construcción del Centro de Transportes de Astigarraga, que contará con una plataforma de aparcamiento para 355 camiones, un edificio de servicios y un aparcamiento exterior para 39 vehículos ligeros. La obra está presupuestada en 9,5 millones de euros y será financiada por Bidegi con un plazo estimado de ejecución de 24 meses. El Centro Integral de Transportes se completará con la reordenación del aparcamiento de camiones ubicado en Oiartzun, y el CIT estará operativo para mayo de 2021.

El nuevo Centro Integral de Transportes se construirá en dos áreas de la autopista AP-8, con una plataforma nueva en Astigarraga, para los tránsitos dirección Behobia, y otra en Oiartzun, dirección Bilbao. Esta obra de Astigarraga será la primera de las actuaciones para dotar a Gipuzkoa del nuevo Centro Integral de Transportes, con una capacidad total de 545 camiones; 355 en Astigarraga y 190 en Oiartzun.

Aintzane Oiarbide ha subrayado la importancia de este proyecto: “Queremos dar un buen servicio a las y los transportistas usuarios de la autopista porque creemos que este Centro de Transportes ayudará a la fluidez del tráfico, además de ofrecer un buen servicio a las y los camioneros para que puedan descansar, preservando la seguridad del personal como la de los vehículos”. El CIT tendrá un nivel 4 dentro de los estándares europeos, y según ha señalado la diputada Oiarbide, “será el único en Euskadi y el de mayor tamaño del Estado que ofrezca ese nivel de servicios y de seguridad”.



Bidegi acometerá en Astigarraga las obras de urbanización que comprende los trabajos de nivelación del terreno para la plataforma mediante excavaciones y rellenos. También ejecutará el ramal de acceso desde la autopista de 176 metros de longitud, la rotonda de distribución de tráfico de entrada y salida frente al aparcamiento y el ramal de 300 metros para incorporarse a la AP-8. Así mismo, realizará la red de drenaje que contará con un sistema de tratamiento de las aguas pluviales y se colocarán pantallas acústicas vegetales y de policarbonato. El CT contará con una superficie pavimentada de 55.591m² y siguiendo la apuesta de la Diputación Foral de Gipuzkoa por bajar las emisiones de CO₂ se ha reservado una parcela para combustibles sostenibles y más respetuosos con el medio ambiente, como son el gas o el hidrógeno, además de instalaciones de recarga eléctrica para los vehículos pesados.

El nuevo centro de Astigarraga, ubicado en el pk 17,000 dirección Behobia acogerá los tráficos que se dirijan hacia Francia. “Decimos que este Centro de Transportes mejorará la fluidez del tráfico en sentido Francia y que absorberá mejor las acumulaciones de vehículos pesados en diferentes estaciones de servicio, ya que, en momentos de retención en la frontera, tendrán la opción de descansar o hacer sus gestiones gracias a los servicios que se ofrecerán en las nuevas instalaciones”. Este proyecto se enmarca en la apuesta de la Diputación Foral de Gipuzkoa por modernizar las infraestructuras de Gipuzkoa: “Somos un territorio de paso del transporte internacional, con un tránsito muy intenso de transporte pesado, con las afecciones que eso conlleva; y esperamos que esto contribuya a mejorar la fluidez del tráfico”, ha añadido Oiarbide.

Se prevé que en el último trimestre del 2019 salga a licitación la concesión del uso y explotación del Centro Integral de Transportes. Corresponderá a la concesionaria la construcción del edificio de servicios de Astigarraga y las obras necesarias para el cierre perimetral y el sistema de vigilancia de las dos plataformas.

Servicio para otros 190 camiones en Oiartzun

El centro de Oiartzun se situará en el área de servicio de Oiartzun en el pk 8,000. En la actualidad el área cuenta con dos espacios de aparcamiento, uno para cada sentido con capacidad para 105 plazas en sentido Bilbao y 57 en sentido Behobia. El proyecto de remodelación, cuya licitación se contempla para enero de 2020, prevé unificar en una única plataforma las dos explanadas existentes conformando una superficie para 190 plazas en sentido Donostia-San Sebastián. Se mantendrá la vía de acceso desde la AP-8 nada más cruzar el peaje troncal de Irun y se eliminará la rotonda interna de distribución. La entrada al nuevo aparcamiento se efectuará por un vial de doble sentido que rodeará todo el perímetro de la nueva explanada.

Los trabajos se ejecutarán en dos fases a fin de garantizar en todo momento entre 35 y 100 plazas. El edificio de servicios será el mismo que está operativo y se mantendrán los aparcamientos para los vehículos ligeros que accedan al área de restauración desde la gasolinera que se encuentra en sentido Behobia. El coste estimado de la reordenación es de 2,2 millones de euros. Tras su ejecución dispondrá de los mismos estándares de seguridad y servicios que el nuevo de Astigarraga. En la



actualidad no cuenta con ningún cierre perimetral ni sistemas de seguridad o vigilancia de cámaras.

Las dos plataformas del nuevo Centro Integral de Transporte, CIT Astigarraga-Oiartzun, estarán en un perímetro cerrado y contarán con iluminación y cámaras de vigilancia que monitorizarán toda la superficie, así como las entradas y salidas. Al recinto sólo podrá acceder el personal del aparcamiento y los conductores, garantizando la seguridad de las y los usuarios y de las mercancías. Los edificios de servicios que irán en las dos áreas dispondrán de restaurante-cafetería, supermercado, aseos y duchas, sala de televisión o zona recreativa y lavandería. También contarán con wifi, cajero automático, servicios de telecomunicaciones, sistema de descarga de tacógrafo y posibilidad de reserva anticipada de plaza.

Zarautz, 2019-02-27